

**JAURLARITZAREN ERAKETA.** Legebiltzarrean «lehentasunezko harremanak» izan nahi ditu Ibarretxek IUrekin

# Madrazok dio «mirari bat» beharko dela IU Eusko Jaurlaritzan sartzeko

Negoiazioetan alderdi sozialista agente neutrala ez dela izan adierazi du IUko buruzagiak

Agentziak | GASTEIZ

Javier Madrazo EB-IUko koordinatzaileak uste du bere alderdia ez dela Eusko Jaurlaritza berrian sartuko. Oraindik azken hitza eman ez badute ere —hitz egiten segitzeko prest azaldu dira bi aldeak— ematen du ez dela posible izango akordioa. «Mirari bat beharko litzateke», adierazi zuen atzo IUko buruzagiak.

EAJk eta EAK «zurrin eta malgutasunik gabe» negoziatu dutela esan zuen Madrazok. IUren parte-hartzea ahalbideratzeko «aldatu» egin beharko luke, Jaurlaritzak «justizia sozialaren alde» lan egingo duela agerian uzteko.

Aldaketa hori hiru alorretan eman beharko litzateke: oinarritzako errentan; etxebizitzan, «herritar guztion eskubidea bermatu ahal izateko» eta ingurumenen. «EAJk hiru alor horietan aldatuko balu bihar bertan posible izango zen akordioa», adierazi zuen Javier Madrazok.

Jaurlaritzako alderdi abertzaleen jokabidean alderdi sozialistak zerikusirik izan duela pentsatzen du IUK. Madrazok, herenegun Gaspar Llamazaresek bezala, salatu du PSE ez dela «agente neutrala» izan negoziazio prozesuan.

«Sozialistek era aktiboan esku hartu dute. EAJri esan diote eurak bermatuko dutela Jaurlaritzaren egonkortasuna, eta, beraz, ez dutela IUren beharrik. Hori horrela da, eta esa-



THOR CASTRO / EFE  
Sabin Intxaurre eta Josu Jon Imaz, atzoko gobernu kontseiluaren ostean azalpenak ematen.

ten dugunaren frogak baditugu», adierazi zuen IUko koordinatzaileak. Sozialisten jokabidea inbestidura saioan, uztailaren 11n, agerian geratuko dela uste dute IUko kideek.

Jaurlaritzaren egonkortasunerako IUrekin itxaropenik ez izateko esan zion Juan Jose Ibarretxe jarduneko lehendakariari: «Jaurlaritzan egoteko baldintzarik ez badaude, beste edozein akordio egiteko ere ez dira izango. PSEren laguntza nahi badute, izango dute EAJren deia zain baitaude».

## Lehentasunezko tratua

Josu Jon Imaz Jaurlaritzako eledunak, bestalde, adierazi du Ibarretxek nahi duela IUrekin lehentasunezko harremanak izatea Gasteizko Legebiltzarrean. Gobernagarritasunari eta bakegintzari buruzko gaietan harreman berezi hori izan nahi du lehendakariak.

«IUrekin oinarritzako gaietan akordio eta diagnostiko komunak ditugu, Beste alderdiekin ez bezala», adierazi zuen Imazek harremanen berezitasuna argu-

diatzeko. Hala ere, Imazek esan zuen baketzeari dagokionez lehendakariak alderdi guztiekin izan nahi dituela harremanak akordioak bilatzeko.

Gorka Knörr Eusko Alkartasunako idazkari nagusiak, bestalde, gezurtatu egin du EAJ zerikusirik izan duela negoziazioen hausturarekin. «IUK negoziazioak hautsi ditu barne arazoengatik. EAJ ez du ezer eragotzi», adierazi zuen Knörrrek, atzo bezperan IUko buruzagiek egin zituzten adierazpe- nei erantzunez.

## ESANAK

### JOSU JON IMAZ

(Jaurlaritzako eleduna)

«IUrekin oinarritzako gaietan akordio eta diagnostiko komunak ditugu, beste alderdiekin ez bezala»

### JAVIER MADRAZO

(IUko koordinatzailea)

«Sozialistek alderdi jeltzaleari esan diote eurak bermatuko dutela Jaurlaritzaren egonkortasuna»

### GORKA KNÖRR

(EAKo idazkari nagusia)

«IUK negoziazioak hautsi ditu barne arazoengatik; Eusko Alkartasunak ez du ezer eragotzi»

### RODOLFO ARES

(PSE-EEko zuzendaritzako kidea)

«IUK ez dauka zertan kanpora joan porrotak azaltzeko, beren estrategiaren erantzule beraiek dira eta»

### JOSE GUILLERMO ZUBIA

(Confebask)

«Confebaskek ez ditu oztopatu Ezker Batuaren eta EAJ-EAren arteko negoziazioak»

## ERANTZUNAK

### PSE-EE

## Heldutasuna eskatu dio Aresk IUri

Rodolfo Ares PSE-EEko batzorde eragileko koordinatzaileak IUri erantzun dio. Javier Madrazok eta Gaspar Llamazaresek, besteak beste, alderdi sozialistari egotzi diote Jaurlaritzan sartzeko negoziazioak zapuzten saiatzea, baina gezurra dela uste dute buruzagi sozialistek. «Bada garaia IUK heldutasunez jokatzen ikasteko. Bere strategiaren erantzule bakarrak beraiek dira, eta ez dute zertan kanpora joan porrotak azaltzeko», adierazi du Aresk.

Negoiazioaren hausturaren beneta-

ko zioak zein diren IUkoek jakingo dutela adierazi du PSE-EEko buruzagiak prentsa ohar baten bitartez. «Guk ez dugu zerikusirik negoziazioen porrotarekin, eta hori badaki Llamazaresek. Horregatik ez luke engainatu behar, eta porrotaren zioak azaldu behar ditu», jakinarazi zuen Aresk.

PSE-EEko kidearen aburuz, benetako arazoak alderdiaren barruan aurkituko dituzte Madrazok eta Llamazaresek. «IUko baseak ez datoz bat zuzendaritzak egin duen EAJrekiko menpekotasun politikarekin», azaldu du negoziazioaren hausturaren arazoi modura. Aresk, gainera, nabarmendu du sozialisten asmoa ez dela EAJrekin gobernatzea, haien alternatiba izatea baizik.

### CONFEBASK

## Zerikusirik ez dutela izan dio Zubiak

Jose Guillermo Zubia EAEko patronaleko idazkari nagusiak adierazi zuenez, Confebaskek ez ditu oztopatu EB-IU eta EAJ-EAren arteko elkarriketak, Madrazoren alderdia azken momentuan Eusko Jaurlaritzatik kanpo gera dadin. Zubiaren arabera, elkarriketak alderdien artekoak izan dira, eta soilik haiek dakite «negociazioak haustearen zergatia». Bere berbetan, Confebask ez da egon prozesu honetan, eta gainera, «begirune» handia izaten dute elkarriketa hauen aurrean. Horrexegatik, bere hi-

tzetan, alderdi politikoei dagokie azaltzea negoziazioak zergatik gelditu diren «ezerezean».

Beste aldetik, Confebaskeko idazkari nagusiak maiatzaren 13ko hauteskundeen emaitzek sortutako egoera sozio-politiko berriaz berba egin zuen. Bere ustez, «egoera berri honek testuinguru lasaia sortu behar du, enpresariak bere lana erarik onenean egiteko aukera izan dezaten».

EAEko patronalaren arabera, normalkuntzak eta baketzeak «inbertsio egokiagoak» ahalbideratzen dituzte. Ildo berean, Zubiak adierazi zuenez, biolentziak Euskal Herrian egiten diren atzerriko inbertsioetan zeresana badu, eta baita turismoaren arloan ere.